



Egin dezagun hegan, arin bada ere, hiru soluzio-familia nagusitan gaindi; honako hauek: **independentzia pasiboa, independentzia aktiboa eta independentzia berria.**





Zerrenda bat osatzen duten elementuak bereizteko, eskuarki, koma (,) erabiltzen da. Zenbaitetan, baina, elementu horiek konplexuak dira (elementu batez baino gehiagoz osatuak daude), eta barnean puntuazioa eramaten dute. Halako kasuetan, koma ez baizik puntu eta koma (;) tartekatu ohi da zerrendako elementu konplexuen artean, horiek elkarrengandik banantzeko.

Fitxa honetan, adibide bidez, zerrendaren puntuatze horren kasu batzuk jorratu ditugu.



- Eskariarekin zerikusia duten faktoreak hauek dira: ¹osasun-sektorearen antolaketa; ²lanpostuen eskaintza eta lurraldeen eta instituzioen arteko banaketa; ³kontratazio-moduak, eta ⁴ordainketa- eta estimulu-sistemak

Zerrendako elementuak lau dira:

- (1) osasun-sektorearen antolaketa
- (2) lanpostuen eskaintza eta lurraldeen eta instituzioen arteko banaketa
- (3) kontratazio-moduak
- (4) ordainketa- eta estimulu-sistemak

Zerrendako elementu bat (2. elementua), hura ere, zerrenda da, izan. Elementu hori puntu eta komaz mugatuz, irakurleari jakinarazten zaio elementu konplexu horren aurreko eta osteko elementuak ez direla “azpizerrenda” horretako elementuak.



Puntu eta koma erabili beharrean koma erabiliko balitz, irakurleak zail luke lau elementuak bereiztea:

- Eskariarekin zerikusia duten faktoreak hauek dira: osasun-sektorearen antolaketa, lanpostuen eskaintza eta lurraldeen eta instituzioen arteko banaketa, kontratazio-moduak, eta ordainketa- eta estimulu-sistemak.



Adibide gehiago:

•Guztira 14 dira: 7, Ziterriorrean; 4, Betikan, eta 3, Lusitanian; eta honako hauek ziren haien gune-buruak: ¹Tarragona, Cartagena, Caesaraugusta, Clunia, Asturica Augusta, Lucus Augusti eta Bracara Augusta; ²Corduba, Astigi, Hispalis eta Gades; ³Pax Iulia, Scallabis eta Augusta Emerita.

Zerrendako elementuak hiru dira:

- (1) Ziterriorreko 7: Tarragona, Cartagena, Caesaraugusta, Clunia, Asturica Augusta, Lucus Augusti eta Bracara Augusta.
- (2) Betikako 4: Corduba, Astigi, Hispalis eta Gades.
- (3) Lusitaniako 3: Pax Iulia, Scallabis eta Augusta Emerita.



Zerrendan elementu batzuk konplexuak eta beste batzuk sinpleak direnean, guztiak, konplexuak zein sinpleak, puntu eta komaz banantzen dira elkarrengandik:

• Esate baterako, seinale-prozesaketa digitaleko teknikak erabiltzen dira honako arlo hauetan: ¹telefono-kanaletako hizketaren prozesaketan eta seinale-transmisioan; ²irudi-prozesaketan eta -transmisioan; ³sismologian eta geofisikan; ⁴petrolio-esplorazioan; ⁵leherketa nuklearren detekzioan; ⁶kanpo-espaziotik jasotako seinaleen prozesaketan; ⁷bestelako hainbat aplikaziotan.

Zerrendako elementuak zazpi dira:

- Hiru, konplexuak (anizkunak): 1, 2 eta 3.
- Lau, sinpleak (bakunak): 4, 5, 6 eta 7.



Zerrendako elementuekin batera, batzuetan, haien gaineko azalpenak, argibideak edo informazio osagarria agertzen dira. Halakoetan ere, puntu eta komaz (;) banantzen dira zerrendako elementuek eta haien gaineko informazioak osatutako sekuentziak elkarrengandik:

- Lau hizlarik hartu zuten parte ekitaldian: **Leire, kritikako irakaslea;** **Koldo, hizkuntza gutxituetan aditua;** **Andoni, EHUko irakaslea,** eta **Ainhua, udaleko kultura-arduraduna.**
- Karga-estazioak honako hauek izan behar ditu: **2,5 m-ko tarte bertikaleko zorrotena, hondakinak biltegitratzeko;** **hondakin-balbula bat, tarte bertikalaren beheko muturrean;** eta **aire-balbula bat, hondakin-balbularen garaiera berean.**



Informazio osagarria adibideek osatzen dutenean, parentesi artean kokatu ohi dira adibide horiek:

•Mineral-mea garrantzitsuenak honako hauek dira: kobrezkoak (kalkopirita eta malakita); zinkezkoak (esfalerita); berunezkoak (galena); burdinazkoak (oligistoa eta magnetita), eta manganesozkoak (pirolusita).

Parentesiak erabili ohi dira, halaber, informazio osagarriari dagokion egitura sintaktikoak luzerarengatik edo konplexutasunarengatik irakurketa galaraz dezakeenean:

•Ereduetan, honako hauek hartzen dira kontuan: dentsitate-uhinak (autobide batean trafiko handiegia denean automobilek osatzen dituztenak bezalakoak); disko galaktikoaren egonkortasuna, eta izarren errotazioa.



Zerrendetan, puntu eta koma erabiltzen da, berebat, zerrenda osatzen duten elementuek nolabaiteko konplexutasun sintaktikoa dutenean: sintagma luzeak dira, edo esaldiak (esaldi beregainak zein mendekoak).

• Helburu hori kontuan hartuta, honako hauek dira gaur egungo ikastaroetako gai nagusiak, gaurko benetako hirigintzan funtsezkoak direla uste dugulako: gaur egungo etxebizitza-sustapen motekin bat datorren partzelazio berria ezagutzea; mugimendu modernoak eragindako ordena irekia (ozta-ozta aztertu da konposizio-mekanismo gisa); eraikin handi eta isolatuak egiteko joera nagusia (ia-ia nahitaezko eraikin tipoa balitz bezala); azpiegitura handien eta zerbitzu-eraikuntzen arkitektura-diseinuan proiektuek duten garrantzia; eta abar.



Beste adibide bat:



- Horra gure aurrean bi galdera: zein dira formarik probableenak mundu honetako errealitatean? Zein dira, kasuan-kasuan funtzio oinarrizko, natural eta kultu konbentzigarrienak? Bi galderoi bederatzi erantzun emango dizkiegu, honako aurrerapentxo honetan laburbiltzen ditugunak: **esferak babestu egiten du**; **hexagonoak, zolatu**; **espiralak, paketatu**; **helizeak, oratu**; **angeluak, barrendu**; **uhinak, lekualdatu**; **parabolak, igorri eta hartu**; **katenariak, eutsi**, eta **fraktalek, kolonizatu**.



Beste adibide bat:

- Pentsa ezazu 8 kB-ko datu-cacheentzat batez besteko hutsegite-tasa honako hau dela: **koma higitikorreko programetan egokitzapena zuzenekoa bada, % 11,4 da hutsegite-tasa; 2 bideko multzokako cache elkargarria denean, % 10,7; osoko programen kasuan, berriz, egokitzapena zuzenekoa denean, % 7,4; eta 2 bideko multzokako cache elkargarria denean, % 6,0.**



Zerrendako azken elementua *eta* juntagailuaren bidez sartzen da (zenbaitetan *edoren* bidez). Fitxa honetan aztergai ditugun zerrendetan juntagailuaren ezkerrean, koma edo puntu *eta* koma jartzen da ([...], *eta*... / [...]; *eta*...).

- Karga-estazioak honako hauek izan behar ditu: 2,5 m-ko tarte bertikaleko zorrotena, hondakinak biltegitatzeko; hondakin-balbula bat, tarte bertikalaren beheko muturrean; **eta** aire-balbula bat, hondakin-balbularen garaiera berean.

- Bi galderoi bederatzi erantzun emango dizkiegu, honako aurrerapentxo honetan laburbiltzen ditugunak: esferak babestu egiten du; hexagonoak, zolatu; espiralak, paketatu; helizeak, oratu; angeluak, barrendu; uhinak, lekualdatu; parabolak, igorri *eta* hartu; katenariak, eutsi, **eta** fraktalek, kolonizatu.



Egitura banakarietan (*bai... bai... / ez... ez... / edo... edo... / hala... nola...*) komaz banandu ohi dira elementuak:

(a) Oinaze horrek jipoitzen nau M. beste andre batekin imajinatzen dudanean. Izan daiteke hazpegirik ez duen **norbait**, **edo** herriko emakume bat, **edo** neska bat.

(*Kristalezko begi bat* eleberritik hartutako eta moldatutako adibidea.)

Egiturako elementuren bat konplexua denean, ordea, puntu eta komaz (;) banantzen dira:

(b) Oinaze horrek jipoitzen nau M. beste andre batekin imajinatzen dudanean. Izan daiteke **hazpegirik ez duen norbait**, **ezagutzen ez dudana** emakume bat, **esaterako**; **edo** herriko emakume bat, **beltzarana nahiz ileargia**, **baina liraina**; **edo** neska bat, **heldu batekin liatu dela lagunei kontatu nahi dien lotsabako bat**. (Kristalezko begi bat, Miren Agur Meabe, SUSA, 2013)



Zerrenda konplexuko azken elementua *eta abar* egitura denean, puntu eta komaz (;) bereizten da egitura hori aurreko elementutik.

- Ildo horretatik, alegoria moral gisako interpretaziorantz lerra daiteke, eta arrazoitu jainko-jainkosa bakoitza arimaren alderdi edo joera baten ordezkari dela: **Atenea, gogoetarena;** **Afrodita, desirarena;** **Hermes, elokuentziarena;** eta abar.
- Inguru horrek makina bat aukera eskaintzen dizkigu, berez: **udan, inurriak kanpoan ibiltzen dira;** **udazkenean,** **zuhaitzetako hostoak erortzen dira;** **gero, inausi egiten ditugu** **zuhaitzak;** **euria egiten duenean, zizareak ikusten ditugu** **tarteka;** eta abar.